

# LANGILLIAK

## LAUAXETA

Valencia eta Murcia ingurubetan kanpoko langilliak barik etxekua gura dabe, lana urri dagolako. Emen ostera etxekua-barik kanpokuak. Ezkertar-lotsagiak zarata bakoiteko egiten dabe, diakorik esaten ba'ogü. Baña demokratak diran ezkerro Valencia'kuak, ondo egiña dago.

"Valencia, jardín de flores..."

Abeslari Juan bezir orain atzeritarrak! Estago lorain eta larrosen koplak entzuteko. Gustijak orain kabernikolen etxera dator. Euzkoen aurka milla gauza usango dabez, gotez ilik datorzan onek. Gero barriz euren emen bixi espaziran gutzaz zer jasoko ete zan, diñoe. Nork deituten ete dautsoe orrei? Euzkotarrak ezkuaz Andaluzia ta Las Hurdes gizon-argi ta buru-zoli orreiri billa.

Baña orain ezta arriituzteko. Prieto be eskian etorri bala, ikusten dabe, gaur barriz España'ko gobernuban dagola. Ez gero edozelan, txindizain baño. Gobernura igon nai dabena, onaxe etortia naiko dau.

Kanpoko zorritxo, lotsabako, gosekil orreik ona etorten dira. Lan-egiteko ezi alperkerian, lapurretan egiteko baño. Txarrena ezta ura. Emen buru ta jaube ixan gura dabe. Euzkotar langilliak zoztorrak ipini ta euzko bakarrak lan egin gura dabe. Emeko batzuk erurrik geten, ez kanpokuak.

Baña orain etoko bidialk zuzendutuen espadoguz, txarto gara. Gobernadoriak asarre dira bertokulu bakarrak lagundu biar yakolela esaten ba'ogü. Beste erkijetan gura dabena zabalduten dabe. Eskian datorz moltsoka artroz zikin orreik. Bateria be etzako emon biar ezer, geure anayak gotez dagozan bertarian. Neuri bakarra dantoztako. Andalucia'n zelako zurrura dira gero kanpokoik lanera an ba'dua.

Castilla aldiñ badira batzuk edo batzuk onantza etorteko gustijak esaten dabiltezenak. Emen Jaña dago-ta. Baña zugatzak etzia darijola eztape. Bei-lodijak len ziran, gaur argalak daukoguz.

—Cahallerito, una limosna.

—Euzkotarra zara?

—No entiendo. Hable en cristiano.

"En cristiano" itz-egingo neban txindi pillo bat emon banetsun. Baña olako erantzuna dirautan bateri, begiko pistorik be ez. Bat bakarrak ez, asko ikusi doguz emen geure txindijak dirala-ta bixi diranak eta gero geure aurka egiten dabena.

Geuk eztagizko "en cristiano" itz-egiten bai? eta belarri-gor egingo gagokoz Langilliak ezetik kanpotik datorzan aldrek dabilte emen eskian. Euzko-Langilliak barriz eskian ibilli barik, euren alkartasunaren birtatez illero eskatu bar leukie onen-hesteko bat. Etxera errezibua ekarri bakoitxari. Orrela jakingo geunke nori emoten dautoguz geure diruba.

Kalian emoten yakonari ardua edateko, geyanian emoten dautoguz.

—Estos vascos son unos miserables. No ayudan al pobrecito que pide limosna.

—Y cuanto tiempo lleva aquí?

—Hace tres meses que llegué.

Orixe entzuzko dozu geyenatan. Cantalapedra inguruban ederto bixi-ei dira baña ona datorz. Gobernubak eta aldunak España'ren gorabalen esaten dabez. Gorabalen orreik barriz Madrid'en ederto dagoz, ez beste tokijetan.

Kabernikolen artera datorz gustijak. Emen aterpiak egongo dira ta ezitza bus-tiko. Kaberna burulan ederto dagoz, gosia kenduko dautsoe beste euzko-gauzak eta. Talde txarrak ezitza orreik.

Lan-bako gustijak lan bat emon biarko dautsoe: Ona datorzan ugerdua sofo-ko ugerrak kendu, dagijezela. ¡Ezta lan txikerra be ixango! Bakotxari sei illebetan eztautsoe kenduko. ¡Ta uger orreik kabernatan bixi-ixateko be kenduten yakozela!

# Egunekua

## INDIJUAK BAÑO BE EUZKOTARRAK INDIJUAGO?

Londres'ko laño ezto ozkiritribak ukutu-odo Gandhi ospetsua, indijatarren buru dan Gandhi entzutesuba, erreume-antzagaz ainka-alakaz ondo ezik ei dabil, eta lodrestarrak, indijatar janzki arriakaz dabil-lakoa ixango dala-ta, ingelanderak lez prakakaz-eta jasteko esaten ei dautse.

Gandhi baña ezta Euzko-Indijuen antze-kuia, edozein tentelkeri gaitik jansjilak ez daitzen dabean emeko indijauk alia, ez; arek indio-adore gustijagaz esan dautsoe, ba, ingelandar-prakak jantzioko dauzan baño lenago, burubari ilten laketuko dautsela.

Iruña'ko jaurle Nabarra'ko erki-aginda-ri jaunarentzat auxe bai dala irakatsi ederra, Gandhi indijauk lodrestarrak emon eutsen erantzuna: "ingelandar prakakaz jantzi baño illia nayago dot".

Iruña'ko jaurle jaunak bere egikeretik dakiguz, bera illia baño, nabartarren ain-tzifikato oitira gustijak illia nayago dala dirudi, ba, gaur Iruña'n ospatzeko diran Jaber'tar Pantzeska nabartar emon ospatsubaren aintzazko jayak ezereztuteko megiñak alein egiten diñardutso-ta; jayori jaokan garrantzijagaz ospatuteko biar dan zabalkundia egin dabene betaketa nabartar edore ezkotarrak bidetako eztan zirkadak ezarten, egizko amearen oyaletik erantzi ta bixi garan arte gustijagaz gorrotako gauzan ama-ordiak eskuratu dautsazan janzki lixunakaz jantzen... Indijauk baño be euzkotarrak indijauago?

Iruña'ko gobernu jaunak erki aretako euzko edore zintzuakin egin dauanaren bar-ri jakiteko, Ag're'tar Joseba Andoni euzkotar aldun argijaren atzoko EUZKADI'n idatzi esaten idazki ederra irakurtia lakor-ri ez, euzko-adore gustijagaz ezaroteko koldarkeri barik eta giza-zentzun oso-oso-kuagaz arek jaurle jaunari diñotsazan gau-zak bijotzik daun edozein gixakiri dardara eragiteko lakoxiak dira-ta; ¡baña Iruña'ko jaurle jaunari be, bere euzko-bijotzta bixi geran arte gustijagaz gorrotako gauzan atzer-riko ama-ordiar emonda ezpa-dankotso!

"Ingelandar prakakaz jantzioko nagan ba-ño lenago, il-egingo naz"—esan eban Gandhi indio ospetsubak.

Gandhi lako euzko-indio ospetsubak biar litzakez Euzkad'i be...

URIBITARTE'TAR IBON.

## Euzkel-txonitzak Bilbao'n

Igaziko igandian, iragarrita eguan lez, Nikola deunaren txadonan, euzkel-txonitzak egiten asi ziran.

Ainbatzuk euzkeldun ikusi gebazan bertora joanda euzkerazko txonitzak entzuten. Bilbao'ko Ensanche, Atxuri, ta beste toki askotatik, Nikola deunaren txadona euzkeldun asko, Jaun-Goiikuren itza euzkeraz entzuten.

Azkue'tar Berbiz Mirena, jaupari argi-ja da txonitzak bere ardurapiran artu dau-za. Geure eskerrak jaun on orreiri, Bil-boa'ko euzkeldunak katik artu dabene nekia, zelanbaitetua ezalako, ba ardura az-tuna da, igandero txonitzak egiten justia. Geure eskerrak, txazjorñak, bai berari, ta Nikola deuneko txadonbur jaunari bere.

Orain euzkeldunok geruago ta geyago joaten alegindui biar gara txonitz orreik entzutera. Beste toki barren bardin jaupea entzun bear dogu, ba gogozki bertara fitarr-bearkunau befatuagaz, geure elari garrantzija emongo dautsogulako.

Badakigu ba danok, euzkel-txonitzak Ni-kola deunaren txadonan, igandaro bedera-tzertidjetan ixango dirala, ta ara jutzen bearturik gogozala. Geure eskubetan dogu arazo oneri bear daun garrantzija emotia, Estau balijo, jauparijak au, ori ta bestia

## Academia de Corte

Si queréis aprender el corte pronto y bien, en la Academia de Maria Luisa de Uriarte, Cursos especiales para modistas, de siete a diez. Se admiten internas.

## Garage Nicasio

PLAZA DE ECHANIZ, 3. TEL. 17.567  
Taller de reparaciones y accesorios.  
Alquiler de automóviles desde 0,50 ki-lómetro.

# ERRIJETATIK

## ARRASATE'TIK

**EUZKEL-IDAZLAI.**—Igari dan igan-deko EUZKADI'ko "Euzkel - Atal,"eko "Arri-Gurutz,"n idazkian irakurri genduzan, ba, onek bidalitako berriyak, ta ederki idatzita ala ere. "Arri-Gurutz" idazle ederra da izan ere.

Aspalditxuban idazle asko atera zaigu Arrasate'tik, ta orrela idaztiarekin bai gau-za ederra egin ere.

Lenago, orain bi illa inguru dirala oso gutxi irakurten zan emen Euzkel-Atala; orain ostera eguner, ta goitiki beraino irakurri ere. Ori da euzkeraren alde lan egit-tia.

Jarraitu, ba, oiantxe euzkeraz idazten, batez ere zuk "Getarbe" jaunak, egunetik egunera ikasten zuzalaz argi ikusten dala-ta. "Mutil zar bat" ere agertu zan, baña bai ixildu ere; berak jakingo du zegaitik baña. Edozegaitik dala be baña, lerro onen bitartez dei egiten diot nik, bere lagun "Getarbe,"k bezela jarraitu dagiyola idaz-ten, zuben idazkiyalk pozik irakurten di-rala.

**IGANDEKO BERRIYAK.**—Aspaldiko egunetik ederreña egin zigun igandian, ta baita guk ondo igaro ere. Goxian bertan geratu gintzazan baña arratsaldian Duran-go'ra juan gintzazan angio Emakume-Abertzale-Batz'kuzan jai ederra ikustera.

Batz'kiyalk jarri zigun belbillian 60'ren bat sartuko gintzazan, ta emakume batzuk ere bai tartetxuban.

Durango-aldian oso ederki ibilli gintza-zan, atseginarriya da, ba, alako jai eder-rak ikustia. Orain erri onetako Emakume-Abertzale-Batz'kuzak zuzenduta itaune au egin biar diet: ¡Zegaitik ekarri ez zuek ere Kareaga anderaño euzkel-izlari azkarrak itz-aldi bat emen egitera?

Emakume gaste onen itzaldi batek beria-la beteko lituke, ba, zuben Batza orretako ixen lerrokadak, eta orañitar lotan dauden Arrasate'ko emakume askori esnatu ezazi ere bai, ta baita Batzokiratu-erazi be.

Ia, ba, Kareaga'tar Eskarne izlari askar-ra Arrasate'n laster ikusten degun.

**ITZALDIYA.**—Datorren igandian Lan-daburu jaunak Batzoki onetan itzaldi bat egingo du. Itzaldi au Emakume-Abertzale-Batz'ko emakumak antolatua dabena da.

Gure txalorik sutsubenak eurentzako dira, ba.

**IKASTOLAK EUZKERAZ.**—Ikastola onek aste onetan asiko dira Arrieta'tar Domeka rakasle dala. Astian egun bi ixan-go dira; astartia ta osteguna. Ordu bateko ikastia ixango da, 8,30'tik, 9,30'tara. Gogor elkin, ba, asko-asko ikasteko.

Urrengo idazkirkako gauza ederrak uzten ditugu, ta orduban jakingo dezute danok nor dan...

## GAZTELU-ONDO.

Uarra.—Ugalde'tar Peli zintzuatzaz emoten dozun izparra kendu egin dogu, arentzako garaya igazita dala-ta: Gañera erderazko idazkijan be izparrori agertuba da. Zorijonak Peli adizkide ta abertzale onari.

## ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA

Etxien-gain diru artu-eremotia INTXAURRAGA'tarr P.

Bilbo-Bailen, 3-2g. 11.685 Urrutizk

## ERMUA'TIK

Ermua erri txikiya da baña gauza asko gertetan diru emen.

Igari dan azilla'n 25'karrenian ixan zan gure Irakasle Sabin zanaren meza.

Meza aretan notintza uandija ikusi ge-ban, emakumetan be edozein, eta danak Sabin'ari otoi egitera juan da. Eta Sabin'ak zerutik bidalduko dauku guri la-guntasuna, berari otoi egiñagaz aberri-ald aurrera jarraitzeko.

Datorren igandian Ander deunaren jaya ospatuko dogu. Jai au ospatuteko erriko abertzaliak pozik dagoz. Lenago meza entz-utera juango dira, eta gero, amaikak igu-ruban pelota lekuban pelota-joko bat ixan-go da. Gaubian aperi txikiaren bat ixan-go dabe, ez edateko asmuagaz baña, Lazkano'tar Miren eibartarra, Biteri ta Ogoñoepi gero etorriko diran izlarijak ardu-usaiki artu eztaikioen, (i) itzaldijak ixango dira, ba, abertzalientzako edaririk gozozenak.

Edari onekaz mozkortuten ba-gara, oia baño oia. Betez, ba, gure Aberri-jaren onerako diran erdijok.

**BATZOKIKO IKASTOLEA.**—Ikastola au aurrera dua, ikasi gurako mutil asko zintzo-zintzo bertaratuten dirala.

Ermua'k baña eztagoz abertzaliak baka-rrik, "Margaritak" be ementxe bixi dira, ba. Onetako "Margarita" bateri Euzkadi azkenengo arnabetan zala entzun neutsan. Ez "Margarita", ez; gure Euzkad'i'ren ar-nazea zuria ta niria baño senduagaz da. Beraz zuri egon, Euzkad'i'ren arnazea baño "Margarita" lora zurijak lenago zimelduko dirala.

**ELEIZKIXUNA.**—Igande arratsaldian Ama Alatzgillieren eleizkizun bat ixan-go da, ta itzaldija, tamalez, erderaz egingo da.

¡Noiztik onakua da Ermua'n erderaz txonitzak egiteko oitira ori?

Tamalgarriya benetan euzkel-erriko ala-bak euren ameari berbesteko izkeran ostika-daka ibiltia.

Emengo "Margarita" euzkeldunen gau-zak olakoxe gauzak dira. (2).

Guk erderaz dala be, Ama Neskutzareña dalako, txadonararuta entzun egingo dogu, baña geure gogua beti ta beti ixango da euzkerazko gogua.

## PANPORA.

(1) Aurixe bai dala zintzo jokatutia; arduaz mozkortuta baño euzkotarrozat aberri-ikastiz mozkortutia onurkorragoa da izan be-ta.

(2) Orrixe "Margaritok" eztaikik ze-lako Margaritak diran; VII garren Kar-la'n emazterien jarralididak diran ala beste era batekuak. Edozetara be gauza onak ez-tira, euzkerari ta Jaungoikua'k euzkotar-ronzatz egin ebazan gauzi orren beste gorroto dautsena ezetara be onak ezin izan leitezke-eta.

"Katolik" ixen asko miñian, eta ¡beti ifiori txarto egiten! Josepetako zelayan tamakatsu guzur-katoliko bai doguz ikus-teko!

Ifiori kalte egitekotan bakarrak katoliko-ixena agotan artuta dabiran gustijak Jaun-goikua'k gaitzetsi egingo dauz, ba, egizko katolikua ixatia Jaungoikua'k egin ixan dauzan gauzai men egin ta lagun urkua ma'tatutia dalako, eta ez euzkerazko gau-zai aurka egiteko lerrenak egiten ibiltia.

## ELGOIBAR

**LEKAIME BERRIAK.**—Astelarian, Kalase deunaren lekaima etxian bi jantzi artze ixan ziran Miren Arantza deritxo le-nago ludian ezan abizenak Egiña Zubeltzu'tar Miren Rite enki zituana. Abarra (To-losa'kuia). Sor "Maria de la Presentación"; lenago ludian Lopetegi Artola'tar Pantzes-ke zanak Arezo (napartarra).

Itzaldie egin zien Odriozola'tar Joseba Mirena Tolosa'ko lekaido Pantzeskarrak.

Eleizkizun au bukatzian baskaria egin zuben lekaima-etxeko areto baten bertan bil-durik senide eta eleiz gizonak.

Zorionak lekaima berri ta bere lagun eta send'kuei.

**IZPAR BELTZA'K.**—Jauna'ren besoe-tan ill dira San Martin'tar Joseba Soarte zarra 83 urte zituala. Garate'tar Andone "Urruzuno-Berri'ko" baserrikuia 60 urte-kuia. Eta gaur uri gutxi tamal aundia artu dau jakitjan Lazurika'tar Balendi'n lidala oso gizon ona eta Euzko Langillia'k Batzar Arteskarikuia zan (Goian bego).

Laguntzen diegu atzegabian senide gus-tieria

**JAIOZTAK.**—Semetxo bat izan dute Arakistain'tar Justina'k eta bere emaste Iriondo'tar Esperantze'k.

Beste mutiko bat izan dute Larrañaga'tar Jon eta bere emaste Zubizarreta'tar Julene "Aldapa" baserrikuak. Zorionak.

**OSAKUNTZA.**—Arrillaga'tar Inaki Mirena, sendagillak Eibar'ko bere ibaki etxe kinikan, osakuntza bat egin dio Zu-bizarreta'tar Mikel emengo Zubizarreta sendagillaren aitari't.

**AMA MIRARITZUBA.**—Gexotxe edo Hospital'eko eleiztxatun Ama Mirentxuba'ten bederatziruennian oste azko ibili da, eta gaur bere eguna lez bukaera oso eleizkorra egin dute.

Goizian goiz oste azko batu zan Gure Jauna artzen, eta marretan jaupe nagusia Perosi'rena abesturik. Itzaldi zakon eta be-ru bat zuzen du zuan goratuz Ama Mira-garria eta gexotxe'ko lekaima langilliak Jaka'tar Andoni apaizak.

Gero Gospurkin relikia num egiteko eman-an, Amabietan egunari dagokion bazkari eder bat, eman zisaioten bertako txiro eta gaxoeri.

Gaubian bukaera emen sizaon eleizkizun eder batekin itzaldi ederra egiñik Onain-dia'tar Keperrin apaizak.

**GELTOKIKO BURU.**—Emengo geit-iko estasio'ko buru jefe autu dute Santiago Dominguez len Donostin bigarren buru za-na geltokoi artian.

**ITZALDIA.**—Asteaskan gaubian Jel Batzokian Sabin'en 28 garren illurte betzia zala, eta gure Batzoki'ko idazkari dan Epelde'tar Albertak, ederki azaldu zigun Arana Goiri'tar Sabin'en bixitzia: txalo azko irabazirik.

## AIXERIXA.

**ETXANO**

**ZABALA'TAR JOSUREN ITZALDI-JA ZORRONTZAKO EUZKO-GASTE-DIJA.**—Azillaren 2'karrenian egin eban, iragarrita eguan lez. Laguntza aundija batu zan, neskatillak be ainbat agiri ziran. "Sabin olerkariya" ixan zan itzaldi-gaya. Irakasiaren olerki-mueta gustijak ederkiro aztertu ta azaldu euskuzan.

Izarlijaren itzak bijotzaren sakon-sakonetik etorzan; suzukak ziran, eta bere bijotzak Jel-maitetasun-sugarr etan ipini eban. Azkenian entzulok txalo-aldi ederra jo geuntsan.

**SABIN'AN URTEURRENIAN.**—Larra'ko eleizan ixan zan il-otoiketia. Elezea lagunez bete-bete egin zan. Olako laguntza-rik inozko urterrenetan eztozu ikusi. Me-za, lekaido-talidiak eta erri-talidiak aldiz-aldizka abestu eban, edertotzu abestu be.

Gaubian Irakasiaren onemeko jaya batzokijan. Lenago Altabe'tar Lander abertzale gaste-berrak itzeikixun polita, irakurri euskun. Onen urrengo Ametzola'tar Joseba Erramun izlari bikiñak Sabin'en ixakera ederto baño edertuago edestu euskun. Onen urrengo Orreita'tar Domeka, gu-re aspaldiko lagun maitak, "Sabin'en azke-nengo miak" gozokiro irakurri euskuzan, entzullen bijotzak ikuturik. Azkenian abes-lari-talidiak abesti eder batzuk eta amaya Euzko - Abendaren - Ereserkiya danon arte abesturik emon geuntsan.

**EKIN IZPARRINGI-ARLUARI.**—Borra'ko basatxuanuan (ernuntan) gure EUZ-KADI igande ta jayetan bertako meza-ostian-ako polito saltzen ei-da. Gure baserri-tarrak abegi ederra egin dautsoe gure izparringi maitari. Etxano'ko elxaldera be eruan da arrezkero ta an be abegi pozgarri-jaz artu dabe.

## EREITZALLE.

**ONDARROA**

**JAUPA BAT.**—Antigua'ko Ama'ren txa-don ederrian, igaro zan igandian egin zan otoizkizunetara gixozte andija ixan zan. Igandian Ondarra'ko abertzaliak ederto erakutsi eban euren abertzaletasun zintza, batez be Emakume-Abertzale-Batz'ko emakume zintzuak. ¡Noiz ikusi da olako no-tintza aundi ta ederrik abertzalietan artian? Irakaslijarenen gomutea bixi-bixi diran ge-ure gogo ta bijotzetan eta ifioz baño sen-duago aldi larri onetan.

Gixoste ederra ixan zan, baña jaupea be gutxijagorako ixan etzan, eta txonitzat Txonitzatzat esan dagikedan gustija gitxi da bat? ta oia-egingo dot ixil-ixilik egon, nire itz gutxijakaz be ondo gourduko euek-leko Uriarte'tar Eustaki jaupari zintza ta itzen ordez neure bijotzeko agurrik sut-subena bidaltzen dautso izparringi onen bitartez. ¡Ori da, ori! Jaun-Goiikua ta aber-riya zegaitik eta zelan maitatu bar diran irakastia.

**BESTE JAUPA BAT.**—Ander Deunaren egunian be jaupe ixil bat emon zan, goxeko zapiretan eta notin asko ixan zan.

Illuntzian abertzale batzuk aperi eder batzuk euki ebazan, orretarako, ba, iru tal-de eder batu ziran.

**EMENGO ABERTZALETASUNA.**—Abertzale azko gara erri onetan baña gus-tijok batzeko tokitsu bat ezaugokoz. Ori-xe dalata emengo "Euzkeltze-Batzkuna" ta "Emakume-Abertzale-Batz'k" gogo-ri diardube lanian eta orretarako Batzoki-Ar-pide bat idigiko da laster eta erri onetako abertzale txindun gustijei orritxo bana bidalduko dautsegubez.

Ia, ba, abertzaliak, gustijok lagundu eta nok ondun laguntzen dautsuden egun tan-tze Batzokija edegiko dogu: gixonekuak obetugao laguntzen ba-dauskuba "Errege" egunian ta emakuniak obetugao laguntzen ba-dauskuba kandelario egunian, eta ez ifior bildurta, aldunak aldaunagaz lagundu ta orrela eg'ñezkero eztago zer esanik;

# Unamuno, edo kirtenkerija

Lenago eguneko "Euzkel-Atala"n. "Uribitar'tar Ibon"ek ifiuna irakurri etorri yet neuri be, Unamuno ta olako gizon txartu orretaz zerbait idazteko. Ez nua baña gaur eurentzaz zer esaten, bada iruditzen zait, lartegi aintzatu eta ditugula gizon txartxubok.

Benetan beintzat, ez det uste eurentzaz azirik galdu biar gendukian emen zintzuok barre egini, edo ez egiteko ezitiof, eta auxa egingo ba'gendu danon-nago. Unamuno ta bera lakual, ixilduko litzakezala.

Unamuno, bere buruba aundizat eta jakintzutaz daukon agure atzotzeta baño ezta. Askok esan dautse jakintsuba dala ta ziniistu egin dau noski. Baña jakintzuria neik esango deutzubet mundikakua dan.

Andalucia'n erabiltzen dabe esakun auxe, ez dakit Mahoma'tarrak erakutsi eurak asmaita, baña egija da: "Gura dozu jakintzutatu artu zaitubezan? Egia xuz 'oro-plantzak'".

Auxe da Unamuno'ren jakituri gustija. Zoro moduban jantzi, zoro-moduban zorakerijak egiti eta zorakerijak esan. Batez bere, esan.

Eta jakintzutaz artu dagijen, bere moduko España'ko ta Amerika'ko lekuak buru Deunak esanda dakigu ba leluak ezin zenbatu ala direala), gaur diñe, "Goikuri bizijaren eskututija ostu bar yakola", (¡Gizona! ori esan barik, egia be-ear zeunke aiti jakintsuba zeran eskeroz) bijar, "euzkaldun'k" ez dala munda eta euzkera ointxe gabiltzala asmetan edo sortuten", (Salamanca'g geyera bea-billen lez) etzi... batek ba'daki zer burubakokeri, edo zer gangareri esango?

Antzixiatxu da nik izpar-ingi baten irakurri nebaia idatzi bat Unamuno'ko onetxegaz "Este sabe ¿qué sabe?".

Au ipinten ebazan bere jakituriaren agerkitzat, jakintza gai asiotan tzezan dispartate edo astakerijak.

Nik ez det ukatzen ifioz, len edo, jakintzuba ixango zanik, baña joriat? Jakiturijak jo, ta botaketa agure txotxolo bat baño es da Unamuno.

Bere jakituriaren sakontasuna, "Amor y Pedagogia" ixena daben bere baten neurtuta daukat nik antzixiatik.

¡Urdalietik gaxotu ez nintzanian bera irakurten! ¡An eguan zata, an eguan rotza, ta an eguan kirtenkeri ta astakerija! Erre egiti bear ixan neban.

Guzurra dirudi, bere burubaren itzala gordé nai daben gizon batek alaba bira rik idatzi leikielik.

¡Arrokjerija barriz? Ara emen bere bixitzaiko yasoñun bat.

Bilboa'ko Iturribarria'tar Pantresa jaunak, abade on eta olerkari bikiñak ta Unamuno, lagun aundijak eta etxeko ziran.

Bein baten Unamuno'k egiti eban olerki bat; erderaz "esperpento" edo "farsa" esaten yakon olako bat, eta bialdu euzko Iturribarria jaunari, bere ezteko eyola eskutubaz.

Unamuno gixajuak, ustie ixan eban nurbait Iturribarriak suxe esango ezta: "¡Ene adizkideal! Arrituta itxi nazu.